

EHU

HABE

RNA

DVD

BEZ

EAE

AEK

BBK

CD

SIGLAK ETA MARRATXOA

Deklinabide-atzizkia siglari lotzeko, ez da marratxorik erabiltzen.

EHUko / *EHU-ko

HABEri / *HABE-ri

CDren / *CD-ren



Salbuespenak:

a) Siglaren azken hizkia eta deklinabide-atzizkia berdinak badira, marratxoa erabiltzen da.

- AEK-**k** matrikulazio-kanpaina abiatu du.

Salbuespenak

b) Testu osoa letra larriz idatzita dagoenean (ez sigla bakarrik),

- marratxoa erabiltzen da:

- ALDUNDIAK DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIO EHU-RI, NAZIOARTEKO NEGOZIOEN MASTER BAT ANTOLATZEKO.

-edo puntuak jartzen dira siglako letren artean:

- ALDUNDIAK DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIO E.H.U.RI, NAZIOARTEKO NEGOZIOEN MASTER BAT ANTOLATZEKO.

Salbuespenak

c) **Siglan letra larriak eta xeheak nahasturik daudenean, marratxoa erabiltzen da:**

- RNAm-**ren** eta proteinen sintesia gertatzen da fase honetan.
- aAMP-**ren** egitura...

d) **Eta bai siglan karaktereren bat agertzen denean ere:**

- Garraio-kate batetik iragan ostean, NADP⁺-**eraino** heltzen da.

Informazio gehiago:

- **EIMA**
- **Ortotipografia**
(pdf, 532 Kb)
- **Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak**
(pdf, 1.304 Kb)